

Arregi, Rikardo. *Herriaren lekuko*. Jakin. Arantzazu. 1972. 109-110.orriak.

Biolentziaz

Biolentzian bizi gara. Errepresentazioko demokrazia krisi gogorrean eta garratzenean aurkitzen da. Badirudi biolentzia besterik ez dagoela korapilo politikoei soluzioren bat aurkitzeko. Menperatutakoa eta politikatua dena, errebolatua da. Eta gizon errebolatua biolentzia da.

Egunerokoak, aldizkariak, irratia, telebista, abestiak, etab., biolentzian bizi dira, nonahitik biolentzia darie.

Psikologoentzat biolentzia era desberdinen diferentziazioa kontzientzipeko motibazioetan dago. Biolentziarik samrrena jolastea dena da. Jolasean bizkortasuna eta arintasuna erakusteko erabiltzen dena. Biolentzia hau ona da, bizitzaren zerbitzuan dagoelako. Bada beste biolentzia era bat, psikologoaren iritzian, gure hardunerako askotaz ere inportantzia handiagokoa dena, defentsarako erabiltzen dena da. Erreakzioan finkatzen den biolentzia da. Gaitzaren kontra sortzen dena. Arrazoimenean sustraitu daiteke eta bizitzaren zerbitzuan egon. Gaitza, biolentzia erreakzio bezala sortarazten duena, askotan ez da benetakoa, irudimen bat baizik. Politikariek beren asmoetan maizago erabiltzen dutena. Gerla guztiak, gaur egun, Herri bakoitzak bere buruaren defentsarako dela sinestaraziz gero dira posible. Oso zaila da, ordea, gerlan dabilzana biek beren buruaren defentsagatik dabilzala baldin badiote, zein den agresorea eta zein jarri duten defentsan erabakitzea. Hala ere puntu honek bi egia erakusten dizkigu: batetik, jendea gerlara mugitzeko bere defentsarako dela sinestarazi behar zaio, bestetik, posible dela defentsarako gerla batera dei eginaz Herri bat askoz ere errazago zuzentzea eta gobernatzea. Bada beste biolentzia bat frustraziotik sortzen dena. Biolentzia hau ezereztatzailea da. Beste bat mendekuarena da.

Hori psikologiaren aldetik. Eta politikaren aldetik, zer? Munduan zehar unibertsitario politikoak biolentziaren bideak aukeratzen ari dira. Biolentzia horregatik dimititu du Belgikako gobernuak. Hori da Estatu Batuetan zenbat beltzek aukeratu duten bidea. Langileak sindikatoez mesfidatzen hasten direnean hartzen dutena. Hego Ameriketako gerrileroena. Vietnamekoa. Biolentzia, beraz, hor dago. Ukatzea edo haintzakotzat ez hartzea aingerukeria litzateke.

Politikan biolentzia bi eratakoa da: sufritzen dena eta egiten dena. Biolentzia sufritu, esate baterako, behartsuek, menderatuek eta menperatuek egiten dute. Aspaldidanikoa denez gero, asko irauten duenez gero, normala dirudi, naturala, legezkoa, berezkoa. Eta orain dator galderarik garratzena, zein da biderik egokiena biolentzia horretatik ihes egiteko? Bai ote dago zenbatetan biolentzia beste biderik? Ez ote da hori, erantzun biolentzia aukeratzea, gainontzeko bide eta erantzun guztiak agortu diren seinale?